

## SECCIÓN AMENA



## DONOSTIAKO GAZTEAK

Langille maisuben festa, igande inauterian eguberdian,

1830-GARREN URTEAN



## Marcha

Erritar gure Donostiako  
 Jende artzalle maiteak  
 Ditugu guztiz gauza ederrak  
 Ugari eta merkeak:  
 Soñi egokiak, zapata pollit,  
 Armariyo eta kuchak,  
 Barrika, farol, perza, paziya  
 Eta guraize chorrochak.

Donoatiarrak oi dira beti  
 Umore onean oitubak  
 Inauteriyari ageri dute  
 Bertako kanta soñubak:  
 Gaur bertan ondo degu erakusten  
 Bere langille maisubak  
 Goizetik arrats geroni eta  
 Andreak dibertitubak.

Beti pakean, beti naikeran  
 Donostiako jendea  
 Nola egunean ala gabeen  
 Atsegin da ekustea:  
 Inauterian ez da ezagun  
 Nor dan zarra, zein gaztea  
 Giza-semea, emakumea  
 Aberats edo pobrea,

**Belaun-chingoa**

Zorzi langille maisu  
 Guztiak gazteak  
 Eta emazteak  
 Arintzen nekeak  
 Gatoz plaza berrira  
 Umore onean,  
 Dantzari-lanean,  
 Kantari nekean;  
 Soñubarekin gera  
 Alegre dantzatzen  
 Ez gera nekatzen,  
 Ez ere aspertzen,  
 Salto bada gizonak  
 Ta andreak salta,  
 Egin lana, kanta  
 Ta nekean dantza.

Dendariyaren andre, lanera egiña  
 Guztiz jostun fina  
 Du esan ariña:  
 Zapatariyak duben, betiko laguna  
 Andrecho kutuna  
 Enterozko ona:  
 Arotzaren andre, lana egin naya,  
 Arkitzen du gaya,  
 Gerriko linaya;  
 Linterna egilleak, duben emaztea,  
 Moduzko gaztea  
 Biziro maitea.

Tornogille andrea, lanean azkarra  
 Maite du senarra,  
 Biyotzcho bakarra;  
 Da perratzallearen andrecho gajoa  
 Chit lagun gozoa  
 Entero jasoia;  
 Paziya gillearen emazte eztiya  
 Ondo ikasiya  
 Konpontzen paziya;  
 Chorrochgillea, nola len zan alar-  
 Artu du laguna, [guna  
 Gazte diru duna.

**Kriskitin**

Eguna aisa, denbora laster  
 Igarotzen da lanean  
 Gogoarekin jardun ezkeru  
 Egitekoa danian,  
 Gogoak arintzen du nekea,  
 Eta sortzen lan bidea.

Badegu gogo, lana badegu  
 Ofizioko jendeak  
 Argatik gaude beti kontentu  
 Gizonak eta andreak:  
 Egunaz gogotik bearrean  
 Eta deskantsuz gabean,

**Chulo-chulito**

Festara gatoz festara  
 Eta nor bere lanera  
 Donostiako plazara  
 Gero ondoren dantzara;  
     Penak utzi eta  
     Maite polita  
 Atoz zu nere ondora.

Neguondoren dantzatzen  
 Dirade penak aztutzen  
 Zankoak dira arintzen  
 Eta ezurrak biguntzen;  
     Atoz nigana  
     Maite laztana  
 Lagun didazu kantatzen.

**Zortzikoa**

Donostiako plazan  
 Dira gaur ageri  
 Gauza merkeak eta  
 Naikuak ugari,  
 Lenbiziko atsegin  
 Eman begiyari  
 Gero diru ederra  
 Ekartzeko guri.

Zer nai gauza badegu  
 Zubentzako diña,  
 Puntada chearekin  
 Modara egiña:  
 Kasaka ta pantaloi  
 Oyalezko fina,  
 Galtza, lebita, kapa  
 Eta esklabiña.

Ditugu bota, eta  
 Zapata sendoak,  
 Işkindogiyak, kuchak  
 Eta armariyoak;  
 Picharrak, inbutubak,  
 Parol eskukuak,  
 Paziya chiki eta  
 Aundi kobrezkoak.

Perrak ditugu neurri  
 Guztietakoak,  
 Sulla, barrika, barril  
 Eta tiñakoak;  
 Arri leunak bestek  
 Ez bezelakoak  
 Guraize ta labanak  
 Chorrochtutzekoak.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.

